

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

360

Azaroak 1, 2019

- 3** Berri laburrak
- 4-5** Merkataritza
- 6** Aurrekontu parte-hartzaileak
- 7** Beldur pasabidea
- 8** Kirolak: Txingudi Egaindar
- 9** Kirolak: Behobia - Donostia
- 10** Elkarrizketa: Jonathan Mesonero
- 11** Haurren leihoa / Denborapasak
- 12** Irunabar / Gazteen lanak
- 13** Beti Gazte: Asier Etxenagusia
- 14** Gazte Informazioa
- 15** Agenda



Zer gertatu zen Irunen orain dela 100 urte?

1919ko azaroaren 9an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkarian hiriko gaurkotasunezko gaiak lantzen dira albiste esanguratsuenetan arreta ipintzeaz gainera. "Algo más sobre el "Electrico"" izenburua daraman lehen artikuluan tranbiaren inaugurazioa eta zerbitzu honen baldintzak erreparatzen dira mugako izaera duen hirian. Jarraian, berri laburren zerrenda batean eguraldi euritxuaz, igandeetan tabernak ixtera behartzen dituen legeaz eta tranbiako langileen uniforme eleganteez hitz egiten da. "Goy-goitik" izenarkein Txori Txikik sinitatutako olerki laburren bilduma publikatzen du aldizkariak.

"Laurent Failhade" izenarekin argitaratutako artikuluan frantsez honen heriotzaren berri ematen du Clarita Candianik. "Notas de un transeunte" artikuluan txakur baten galeratik sortutako historia guztia kontatzen du idazleak, txakurra bere jabeen eskuetara itzultzen den arte. Hiriko gaurkotasun alde batera utzita, Loiolako santutegia eta Azpeitia artean eraikitzen ari den Gipuzkoako etorbidea aipatzen da, obra hori aurrera eramateko ideia Irunen sortu zela gogoraraziz.

Kirol kronikaren barnean, aldiz, nazio mailako futbol txapelketaren xehetasunak ematen dira. Hortaz gain, Amuteko zelaian jokatu diren partiduetan eta hurrengo nazioarteko partiduen data eta hitzorduak aipatzen dira ere. Irungo Aduanatik igarotzen diren merkantziek beste mugetan izandako atzerapen eta arazoak lantzen dira. Jarraian, Irungo Udal Musika Banda berregituratzeko zailtasunak aipatzen dira.

Azken orrialdeetan, beti bezala, hurrengo egunetako antzokien programazioa erreparatzen da, 1883 urtean aldizkari honetan bertan argitaratutako albiste esanguratsuenak gogora ekartzeaz gainera. Ondoren, Juaristi doktoreari homenaldia egiteko bildu den diru-kopurua eta pertsona bakoitzak egindako ekarpenaren kopurua ezagutzera ematen da. Albiste labur batzuen ostean, azken publizitate orrialderi tartea emateko aldizkariaren azken zenbaki hau itxi aurretik.

- G57060: Gipuzkoako etorbidea 1940 hamarkadaren amaieran. Iru-dian eskubian Normandie eraikina eta ezkerrean Olazabal mendixka.

- G11009: Irungo Aduanaren eraikinaren kanpoaldea 1960 urtean.

- G1170: Regino Aizek zuzendutako musika banda Aquilino jauregiaren aurrean 1902 urtean.



G57060



G11009



G1170

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena
Ainara Berges

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Publizitatea:

Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:

Andrea Gomez Arocena

Inprenta:

ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L
www.837comunicacion.com

ISSN:

1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 20 52

Wegunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Bizinema Bang Bang-ek urteko hirugarren emanaldia antolatu du azaroaren 9rako Amaia Kultur Zentroan

Bizinema Bang Bang ekimenak azaroaren 9an eskeiniko du aurtengo hirugarren emanaldia. "Los Goonies" eta "Tiburón" filmak izango dira aurtengo azken saioko protagonistak. Hortaz gain, giro ona eta bestelako sorpresak nagusituko dira bertso originalean zinemako klasi-koak erakusketeko apustua egiten duen jaialdian. Sarrerak 5,35 euroren truke salgai dadude jada ohiko tokietan.

Arazoaren 9an izango dute zinema klasikoaren zaletuek hurrengo hitzordua. Arratsaldeko 17:30etan Amaia Kultur Zentroko ateak irekiko dira proiektzioaren aurreko animazioarekin hasteko. Lehen pelikularen proiektzioa 18:00etan hasiko da eta, aurreko saioetan bezela, atsedendian pizza, edariak eta sopresak jasoko dituzteko ikusleek kolaboratzaileen laguntzari esker.

Formatu erakargarria

2017ko aurrekontu parte-hartzaileetan boto-

kopuru altua bildu ostean martxan jarri zen Bizinema Bang Bang. Emanaldi horien helburu nausia 80 eta 90 hamarkadan estreinatutako pelikular bertso originalean pantaila handian berriro ikusteko aukera ematea da.

Ordutik saio ugari antolatu dira eta saio guztiez gozatzeraz hurbiltzen den zaletu taldea biltzea lortu du. 2019 urtean zehar antolatutako aurreko bi saioetan, batetik, "La Vida de Brian" eta "Terminator" eta, bestetik, "La princesa prometida" eta "Starship troopers" pelikular proiektatu ziren.

Sarrerak salgai

Sarrerak 5,35 euroren truke salgai daude jada ohiko tokietan: Irungo Turismo Bulegoan, sarreraren salmentarako udal webgunean (www.irun.org/entradas) eta Amaia Kultur Zentroaren leihatiletan emanaldia hasi baino ordu bat lehenago.



Euskara arloak "Familia Ola" programaren edizio berria prestatu du

Euskara arloak "Familia Ola" programaren edizio berria prestatu du. Familia Ola programa 2 eta 8 urte bitarteko haurrak dauzkaten familiei zuzendurik dagoen egitasmoa da, euskararen familiarterako transmisioa doako jardueren bitartez sustatzeko helburua duena.

2009 urtean Irundo Udalak, Euskara Arloaren bidez, Mrezi duelako! proiektua abiatu zuen, euskaren familiarterako transmisioa sustatzeko asmoz eta, ekimen horren baitan, Familia Ola programa sortu zen. Azken urteetan zehar gauzatu da ekimena eta euskara arloko ordezkariak azaldu dutenez, "hizkuntzaren familiarterako transmisioa bultzatzen lagundu nahi dugu eta, berezi, pixkana-pixkana etxeko komunikazio esparru formal zein naturalak berreskuratu, geltarik haratago, erabilera txikiagoa baita familiarteran".

Horretarako, 2019-2020 ikasturtean, familia euskalduntzako eta hizkuntza ondo menperatu ez, baina, euskararen erabilera sustatu nahi dutenentzako aisialdiko jarduerak antolatuko dira. Horien artean, sukaldaritza tailerrak, eskulanak, irteerak eta abar.

Hiriko ikastetxeetan egingo dira jarduerak horiek guztiak eta ekimen guztiako doakoak izango dira. Parte hartzaileek azaroaren 6ra arte izen eman ahalko dute www.irun.org udal webgunean.

Hurrengo ekintzak

Familia Ola programako lehen ekimenak azaroko hilaberterako antolatu dira. Lehen ekintza azaroaren 12an eta 14ean egingo da arratsaldeko 17:30etatik 19:00etara. Lehen jarduera honen bitartez zirkoaren mundu iluragarrira ezagutzeko aukera izango dute ekintzan parte hart-

zen duten haur eta helduek, esku jolas eta lurreko akrobaziak eginez.

Azaroaren 23an Oiartzungo Arditurrira bisita antolatu da familiei meategien gaia hurbiltzeko. 2 eta 8 urte bitarteko haurrak dauzkaten familiek meategia bisitatzeko aukera izango dute goizeko 11:00etan Arditurri (Arditurri Bidea, 3, 20180 Ergoien, Gipuzkoa) abiatuko den bisitaren bitartez.

Momentuz Familia Ola programaren barnean antolatutako azken jardueran zentzumenek protagonismo berezia izango dute. Azaroaren 26 eta 28an 17:30etatik 19:00etara egingo diren tailerren bitartez zentzumenak martxan jarriko dituzte parte-hartzaileek gaitetak eginez.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA

caser
residencial

GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM

Saltoki txikien erronka erraldoia



Aspalditik Irungo merkataritzaren egoera hiriko biztanleriaren elkarrizketetan pil-pilean dabilen gaia da. Askotariko iritziak egon arren, hiritar gehinek Irungo merkataritzak bizi duen momentuaren balorazio negatiboa egiten dute. Beherakada garai honen erakusle garbiak dira hirian barrera geroz eta gehiago pertsiana jeitsi eta erakuslehoan "salgai" dioen kartela erakusten duten lokalak. Egoera honen aurrean, saltoki txikien biziraupena bermatuko duten irtenbideak bilatzeko borrokan dabilta Irungo merkataria.

Ez lehena, ez azkena

Oraingoa ez da Irungo merkatariek bizi duten lehen beherakada garaia. Denboran 20 urte atzera egitea nahikoa da eskualdean merkataritzak izandako bilakaera antzemateko eta, eboluzio horren barruan, saltoki txikiak gorakada zein krisialdi egoera ezberdinetatik igaro dira. Izan ere, hasieran dendarien lehia zuzenagoa zen, alboko denda edo, gehienez, auzoan bertan kokatzen baitzen.

Txingudi merkataritza-gunearen erakuntzak Bidasoa eskualdeko erosketa ohituretan lehen aldaketa garrantzitsua ekarri zuen. Merkataritza Irungo erdigunetik deszentralizatu eta kanpoaldeko eremura eraman zen. Urte batzuk geroago, Mendibil merkataritza gunearen eraikuntzarekin, dendariak eta erosleak berriro Irungo erdigunera erakartzea lortu zen, nahiz eta era berean frankizien agerpenak dendari txikiei erronka berriak sortu.

Hiriko Merkatarien Elkartek dira hiriko merkataritzaren errealitatea ondoen eza-gutzen dutenak. BidaShop elkartetik Yon Gallardo ordezkariak Irungo dendariak garai berrietara egokitzeko egiten ari diren esfortzuaren inguruan hitz egin du, izan ere, merkataritzaren suntsiketa handia gertatu baita azkenaldian Gipuzkoa osoko hiri eta herrietan. Yon Gallardok azaldu duenez, Irungo hiria betidanik denda dentsitate handi izan duen hiria izan da inguruko herriekin alderatuta. Gallardok adierazi duenez, deigarria eta bel-durgarria da erdigunea hutsik gelditzen diren lokalak ikustea eta, kasu askotan, alokairua eta bezeroen garraio zailtasunak ezkututzen dira itxiera horien atzean, sektoreko norgehiago alde batera utzita.

Egungo erronkak

Bizitzako beste alorretan gertatzen den moduan, XXI. mendean internet da sektore guztiei eragiten dien iraultzarik handiena. Digitalizazioak erosle zein saltzaileei erosketa harremanak modu ezberdinean gauzatzeko aukera ematen badie ere, 24 orduz zerbitzua eskaintzen duen aurkaria sartu du etxe guztietan. Egoera honek auzoetan oinarrizko produktuak saltzen dituzten denda txikietan ondorio gutxiago izango dituen arren, ehungintzaren edo teknologien sektoreko saltokietako lehia aregotuko du. "Merkataritzaren erronkei aurre egiteko Big Data hobeto erabiltzen ikasi behar dugu", azaldu du Yon Gallardok.

"Merkataritzaren erronkei aurre egiteko Big Data hobeto erabiltzen ikasi behar dugu"

Yon Gallardo, BidaShop elkarteko ordezkaria

Teknologiaren garapenak ekarritako etsaiei aurre egiten saiatzeko, BidaShop elkartean proiektu berritzaileak martxan jartzeko ahalegina egiten ari dira. Esaterako, egun gutxiren barruan hiriko 50 denda elkartuko dituen fidelizazio txartel bat aterako dute. Txartel horren bitartez ekimenera batu diren edozein dendetan egindako erosketengatik bezeroek %2ko deskontua irabaziko dute, gainontzeko dendetan erabili ahal izango dena. "Hone-lako ekintzen bitartez erosleek gastua Irungo dendetan mantendu nahi dugu", azaldu du Yon Gallardok BidaShop elkarteko ordezkariak.

Zaldunbordaren mehatsua

Iraileko hilabetearen amaieran, Irungo Udalean ordezkari politikoak duten talde guztiek adierazpen bateratua egin zuten Zaldunbordako proiektuarekiko desadostasuna adieraziz. Irungo Sozialistak, Irungo EAJ, Elkarrekin Podemos Irun, EH Bildu eta PP alderdietako politikariek proiektua baztertzea eskatu zuten, Zaldunbordaren eraikuntzak tokiko merkataritzarentzat konponezinak izango diren ondorioak eragingo dituelakoan.



Coach-a eta era zoriontsuan produktiboa izateko prozesuetan akonpainamendua

- Coaching pertsonalizatua: aholkuntza, determinazioa eta gogobetetasuna.
Zure ametsak betetzeko baimena emalazu zure buruari!
- Talde coaching-a: Kohesioa, zoriontasuna eta produktibitatea.
Egin ezazu zure taldea zoriontsu era produktibo batean.
- Tailerrak eta konferentziak: garapena eta matibazioa lortzeko.



info@anaeguiababal.es
www.anaeguiababal.es

Ekainaren 26ean, Hondarribiko udal gobernuak Zaldunborda Gaineko Partzelazio Plan Partzialaren hasierako onespena baimendu zuen, Higertoki SLk sustatuta. Behin hura baimenduta, "outlet village" bat eraikiko da Zaldunbordan: ehun saltoki baino gehiago, 28.000 metro karratuko instalazioa, 133 milioi euroko inbertsioa eta 1.800 ibilgailuentzako aparkalekua. Hain zuzen ere, Eusko Legebiltzarrak Establezimendu Komertzial Handien Lurralde Antolamenduari Buruzko Legea onartu eta merkataritza-gune berrien eraikuntza mugatu aurretik baimendu zen hasierako onespena, ekainaren 27an onartu baitzen lege berria.

Irungo Merkataritza Mahaia

Irungo Udaleko Hiri Bultzada arloak hiriko dendak babesteko lan egiten du lerro ezberdinetan zabalduetako proiektuen bitartez. Momentu honetan lerro garrantzitsuena duela gutxi sortutako Irungo Merkataritza Mahaia da. Bertan, Irungo Udala, Gipuzkoako Merkatarien Federazioa, Gipuzkoako Bazkundera, FICOPA, Bidasoa Bizirik eta hiriko merkataritza elkarteak biltzen dira, Merkataritza Plan Estrategikoa gaurkotu eta indartzeko helburuarekin. Aurretik martxan dauden proiektuak laguntzeaz gainera, foro honen bitartez etorkizunean gauzatu daitezkeen ideia eta proposamenak biltzeko aukera eskaintzen du.

Jada martxan dauden ideia eta proiektuen artean, Dinamizazio komertzialerako diru-laguntzak, alokairuan lagundu edo berritze lanak sustatzeko K-Biziak diru-laguntzak edo gazteek proiektu komertzialak bultzatzeko laguntza ekonomikoak daude. Hortaz gain, garai berrietara egokitzeko formakuntza osatzeko ikastako eta tailerrak sustatzen dira ere. Gainera, "Hobetuz" edo "Singular bidez, merkataritzak bizi duen egoera lagundu nahi da ere.

Etorkizun ezezaguna

Irungo denda txikien etorkizunaren inguruan galdetuz gero, gutxi batzuk ausartzen dira aurreikuspenen bat egitera eta, kasu horretan, zalantza eta aldaketaz beteriko etorkizun bat aurreikusten da. Merkataritzak eta teknologien garapenak ekarriko dituen berrikuntzetara moldatzeko gaitasunak markatuko du aurrerantzean Irungo hiriko merkataritzaren norabidea.

Merkataritzaren erresistentzia

Ainhoa Pikabea, Valentina arropa denda: Leon Iruretagoyena kalean kokatutako arropa dendako jabearean arabera Irungo merkataritzak egoera kaxkarra bizi du eta, zentzu horretan, aurretik Irungo kaleek zuten bizitza galtzen ari dela dio. Denda duela 6 urte zabaldu zuen, baina, azken 3 urteetan hiriko merkataritzaren egoera nabarmenki okertu dela ikusi du. Jende gazteak, batez ere, arropa internet bidez erosteko ohitu hartu duela aipatzen du. Bestetik, dendari txikiei merkataritza-gune handien eskaintzekin leihatzea ezinezkoa zaiela azaltzen du, zaila baita lokalak sortzen dituen gastu guztiei aurre egitea Eusko Jaurlaritzaren edo Udalaren diru-laguntzarik jaso gabe. Produktu eksklusiboagoak eta arreta pertsonala eskaintzen dituzten denda txikien bitartez Irun soilik lo egiteko hiri batean bihurtzea saihestu nahi da.



Inma Arizta, Pombar zapata denda: Pombar dendak 80 urte beteko ditu laster ateak zabaldu zituenetik eta egungo egoera dendaren historian bizitako krisialdi latzena dela azaltzen du Inma Ariztak. Jendeak merkataritza-gune erraldoietan edo internet bidez erosteko ohitura hartu duela aipatzen du. Lehenago, Frantzia zein Nafarroako herri txikietatik etorritako erosle asko hurbiltzen ziren Kale Nagusian kokatutako denda honetara, egun aparkatzeko zailtasunen ondaoriotz uxatu direnak. Hortaz gain, eguraldi onak neguko produktuen salmenta laguntzen ez duela gaineratu du. Pombarren kalitatezko oinetakoak saltzeko betidanik egindako apostua azpimarratu du saltzaileak, jendearen gogobetetasuna lortzea baitute helburu..



Mariana Escalada, Tartufa jostailu-denda: Irungo merkataritzan beherakada garaia antzematen du Marianak ere Tartufa jostailu dendatik, batez ere, duela 3 urtetik hona. Egund jostailuak internet bidez edo supermerkatuetan erosteko aukera dagoen arren, Colon pasealekuan kokatutako denda honetatik erosleei tratua berezia eskaini eta haurrei jolasten erakustea dute helburu. Ahal den heinean eskaintza bereziak edo stock kanporaketak antolatzen saiatzen dira jende erakartzeko. Egoerari aurre egiteko, merkatariaiek ekintzak antolatzeko elkarrekin gainera, internet eta sare sozialen aro berrira egokitzea ezinbesteko ikusten du Mariana dendariak.



Estibaliz Paule Moreno, Nanas haurrentzako arropa denda: Azken bi urteetan Irungo merkataritzak behera egin duela ikusi du Estibalizek bere dendatik. Saltoki handiegekin leihatzea ezinezkoa den arren, saltoki txikiak dendariak harreta beste inon aurkitzea ezinezkoa dela aipatzen du eta, egoerak hobera egiten ez badu, etorkizunean dendariak robotek ordezkatu dituztelaren beldur da. Era berean, hiriko denda txikietan dendari eta erosleen artean konfiantzaz harreman bereziak sortzen direla azpimarratu du. Zoritxarrez, geroz eta gehiago dira lokalak hutsik uzten ari dituzten dendak. Estibalizek, aldiz, esperantzaz begiratzen dio etorkizunari, iraganean Nanas denda irekitzeko egindako esfortzu eta ilusio guztiak bidean galdurik gera ez daitezkeen.



Neumáticos
txepetxa



NEUMATIKOEN SALMENTAN LIDERRAK,
AUTO SALMENTAN ETA AUTOEN KONPONKETETAN LIDERRAK

info@txepetxa.com • Letxunborro Hiribidea, 92, Irun • 943 63 13 99



Fase orokorra:

- 1) Hiriko bidegorri sarea osatzeko bidegorri zatiak eraikitzea (170.000€): 444 boto
- 2) Egungo eskaintza kulturala handitzea (musika, antzerkiak, ikuskizunak, etab.) hiritar guztientzat (150.000 €): 383 boto
- 3) Espaloi zintarriak beheratzea oinezkoen pasabideetan (50.000 €): 341 boto
- 4) Oinaurreko garapen urbanistikorako planean aurreikusitako kirol eremuaren proiektuaren erredakzioa eta gauzatzea (500.000 €): 285 boto
- 5) Txakurren gorotzak kontrolatu eta zigortzeko kanpaina (109.000 €): 277 boto
- 6) Agiteria publikoa Led bonbiletan ordezkatzeko proiektua (300.000€): 275 boto
- 7) Juncal Taldean (Lapitze auzoan) haurrentzako ekoparkea eraikitzeko proiektuaren erredakzioa (18.000 €): 235 boto

Gazteentzako aurrekontua:

- 1) Irungo gazteen elkarte edo gazteentzako lan egiten duten elkarten ekipamendua hobetzeko diru-laguntzak (20.000 €): 21 boto
- 2) Asteburuetan bestelako aisialdi ekintzak antolatzea (30.000€) 15 boto
- 3) Zeinu-hizkuntza ikasteko tailerrak (3.000€): 14 boto
- 4) Gazte elkarteentzako diru-laguntzen kopuruak handitzea (20.000€) 13 boto
- 5) Gazteentzako sexu aholkularitza zerbitzua (18.000€): 12 boto
- 6) Lana bilatzen duten gazteentzako formakuntza (6.000€): 11 boto
- 7) CBA liburutegiaren ordutegia zabaltzea (16.941€): 11 boto
- 8) Aisialdiko monitore eta zuzendari ikastaroa (30.000€): 7 boto
- 9) Asteburuetan multi-abentura ekintzak antolatzea (15.000€): 5 boto
- 10) Agenda 21: Hiriko dendetan poltsa berrerabilgarrien erabilera sustatzea (20.000 €): 5 boto
- 11) Arte jaialdia eta hiri adierazpenak: grafikak, hip-hop, parkour, skyline, ... (15.000€): 5 boto
- 12) Sari ekonomikoa izango duen film-laburren edo sketch-en lehiaketa antolatzea parte hartzea sustatzeko (8.000€): 5 boto

2020ko aurrekontu parte-hartzaileetako proiektu irabazleak hautatu dira



2020 urterako aurrekontu parte-hartzaileek proiektu irabazleak daukate jada. Guztira, gazte eta prozesu orokorraren artean, 19 proiektu onartu dira deialdira aurkeztutako 39 proposamenen artean. Aurreko edizioetan bezala, irundarrek haien iritzia eman ahal izateko tartea izan dute prozesuaren hasieratik amaierara eta bozketan mila pertsona inguruk parte hartu dutela kalkulatzen da.

Hautaketa prozesuaren azken fasea urriaren 15eko gauerdian amaitu zen, honela, 2020 urterako aurreikusitako aurrekontua zein proiektu gauzatzeko bideratuko zen erabaki zelarik. Aurreko urteetako eredu jarraituz, prozesua bi ataletan banatu da: atal orokorra eta gazteentzako atala. Atal orokorraren 7 proiektu hautatu dira azken bozketan 20 proposamen finalistaren artean, jasotako boto kopuruaz gainera, aurreikusitako aurrekontura egokitzen direnak.

1,3 milioi eurotako aurrekontua bideratu da 2020 urterako proiektuen hautaketarako. Hautatutako proposamenen baturak 1.297.000 eurotako da, beraz, aurretik ezarritako zenbatekoa gainditzen zuten proposamenak ez dira aukeratu. Horren ordez, soberan gelditzen ziren 3.000 euroak gazte aurrekontuen

proiektuak osatzeko erbaili dia, parte-hartze saioan adostutako metodologia jarraituz.

Guztira 950 pertsonak parte hartu dute prozesu orokorrean bozketan. Irun txartelaren sistema martxan jarri zenetik prozesu honetan lorturiko bigarren daturik onena izan da aurtengoa, izan ere, 2018 urtean 1.419 pertsonak parte hartu zuten eta. Botoemaileen profilari dagokionez, parte hartzaileen erdia 30 eta 50 urte arteko pertsonak dira. Gainera, emakumeek bozketarekiko inplikazio handiago erkautsi dute, hain zuzen ere, emakumezkoen parte hartzea %56koa izan baita, aurreko urteetako joera mantenduz.

Hobetzeko asmoa

Udalaren barneko Informazioaren Gizartea eta Harremanen Parte-Hartze arloak hiritar zein hiriko elkartei eskerrak eman dizkie aurrekontu parte-hartzaileen inguruan antolatutako prozesu honen barneko fase ezberdinetan izan duten parte-hartze eta jarrera aktiboarengatik. Hortaz gain, hurrengo asteetan zehar prozesuaren parte-hartzearekin loturiko datu zehatzagoak bilduko dira, beraz, datuak aztertu eta hurrengo edizioetarako hobetzeko dauden gauzak identifikatzea espero da.



Santiagoko Deabruak elkarteko antzezleek dardarka jarriko dituzte Ficobako bisitariak



Santiagoko Deabruak elkarteko kideek Beldur Pasabidea antolatu dute azaroaren 2rako. Ibilbide belgugarrienaren 16. edizioa izango da aurtengoa eta Ficoba erakustazokako lehen pabilioia dekoratu beldurgarrienarekin apainduko dute, beste urte batez izuaren hitzordua erakustazokara hurbiltzen diren bisitariarentzat oharkabean pasa ez dadin. Sarrerak 3 euroren truke Amaia Kultur Zentroan salgai egongo dira urriaren 29, 30 eta 31ean arratsaldeko 17:30etatik 19:30etara. Hortaz gain, sarrerak soberan egonez gero, saldu gabe gelditzen diren sarrerak Ficoban salgai jarriko dira emanaldiaren egunean 17:45etatik aurrera.

Azaroaren 2ko arratsaldeko 18:00etatik gaueko 21:30etara Ficobako instalakuntzek itsurarik beldurgarriena hartuko dute, izan ere, Santiagoko Deabruak elkarteko kideek Beldur Pasabidea antolatu dute eta. Azken urteetan egin bezala, izuaren ibilbideari zentzua emateko monografiko bat egitea erabaki dute aurten ere eta hautatutako gaia prisondegi psikiatrikoa izan da. Jose Mari Clemente Santiagoko Deabruak elkarteko presidentek azaldu duenez, Beldur Pasabideko gaia elkarteko kideekin egiten diren bileren bitartez hautatzen da. "Taldekideek gai proposamen ezberdinak egiten dituzte eta guztien artean bideragarriena iruditzen zaigun gaia hautatzen dugu", gaineratu du elkarteko presidentek.

Bisitariak prisondegi psikiatrikoan murgiltzeko 32 aktorek haien antzezle gaitasun onenak erakutsiko dituzte. Aktoreak ibilbidea osatuko duten gune ezberdinetan zehar sakabanaturik egongo dira. Jose Mari Clementek adierazi duenez, "Beldur Pasabidea prestatzeko ez dugu entsegurik egiten". Bileren bitartez prestatzen ikuskizuna, ardatz izango den gaia erabaki ostean, aktoreak gune ezberdinetan sakabanatu eta espazio bakoitzeko aktoreak arduratzen dira estantzia apaindu eta mozo-

roak lortzeaz. Aktoreez gain, makilatzaile, muntaketa arduradun eta bestelako kolaboratzaile askoren laguntza ezinbestekoa da urte batetik bestera ikuskizuna errepikatu ahal izateko eta, horregatik, elkartetik antzezlanen laguntzen duten pertsona eta elkarte guztien kolaborazioa eskertzen dute Santiagoko Deabruak elkartetik.

Beldur Pasabidearen edizio bakoitzean 1.500 eta 2.000 pertsona ausartzen dira izuaren ibilbidearen ateak zeharkatzera. Elkarteko presidentek azaldu du urte batetik bestera bisitari kopurua aldatu ohi dela, nahiz eta urtero emanaldia data berdinen inguruan antolatu. Jose Mari Clementeren hitzetan, "beldurra emateaz gainera, gure asmo nagusia jendeak disfrutatzea da". Horrela, aurreko hilabeteetako bilera egunetan eta muntaketa egunera zehar egindako lan gogorra saritzeko aukera dute elkarteko kideek, izu eta dibertsioz beteriko arratsalde baten bitartez.

"Ficobako instalakuntzek kanpoaldeko eguraldiak ematen ez digun segurtasuna eskaintzen digute"

Jose Mari Clemente, Santiagoko Deabruak elkarteko presidentea

Zentzu horretan, elkartetik ez dute inolako mugarik ipintzen pasabidera sartzeko gutxieneko adinari dagokionez, presidentek azaldu duenez adin berdina izan arren, ume bakoitzak izua modu desberdinean kudeatzen du. Hala ere, emanaldian zehar ematen diren sustoek

bihotzeko gaixotasunak dauzkaten edo aurdun dauden emakumeetan izan ditzaketen ondorioak ohartarazten dituzten kartelak ipintzen dituzte ibilbidearen sarreran

"Beldurra emateaz gainera, gure asmo nagusia jendeak disfrutatzea da"

Jose Mari Clemente, Santiagoko Deabruak elkarteko presidentea

Ficoban egitearen abantailak

Jose Mari Clementek adierazi duenez, "Ficobako instalakuntzek kanpoaldeko eguraldiak ematen ez digun segurtasuna eskaintzen digute". Izan ere, lehen urteetan zehar Beldur Pasabidea Dunboako bidegorriaren inguruan antolatzen zen eta zenbait urtetan emanaldia eta egindako lan guztia bertan behera gelditu zen eguraldi txarraren ondorioz. Ficoban, antzezlanaren garapen egokia zihurtatzeaz gainera, bisitarien sentsazioa klaustrofobikoagoa da, izua zabalpena lagunduz.

Kide berrientzako aukera

2019 urteko Beldur Pasabidea aurrera eramateko xehetasun guztiak loturik daude, baina, datozen urteko emanaldian parte hartzeko interesa dutenentzako ateak zabalik dauzkate elkartean. Jose Mari Clemente Santiagoko Deabruak elkarteko presidentek adierazi duenez, data iritsi baino bi hilabete lehenago hasten dira Beldur Pasabidea antolatzen. Hortaz, norbaitek antzeleran batzeko asmorik izango balu, iraileko hilabetearen inguruan elkarteko arduradunekin harremanetan jarri beharko litzateke.

Eskubaloia praktikatzeko aukera berria Txingudi Egaindar klubaren sorrerarekin

Ikasturte berriaren hasierarekin bere ibilbidea abiatu du Txingudi Egaindar klubak. Neska zein mutilei eskubaloiaz gozatzeko aukera eskaintzeko helburuarekin sortu da Txingudi Egaindar, hezkuntza esparru batean, pertsonen osotasuna eta baloreen ikaskuntza sustatzen den bitartean. Haurrentzako eskolaz gainera, neska eta mutilen senior talde bana osatzea lortu dute lehen denboraldi honetan, beti ere, datozen urteetara begira talde eta kategoria gehiago eskaintzeko asmoarekin.



Izaskun Larruskain, klubeko zuzendaritzaren ordezkaria:

Nola sortu zen kluba martxan jartzeko ideia?

Guraso batzuek Irunen kirol hau indartzeko beharra ikusi genuen. Bidasoa oso maila altuan egon arren, neskentzako senior talderik ez zegoela konturatu ginen eta udaran klub berria sortzeko erabakia hartu genuen.

Nola moldatu zare eskualdean klub berria ezagutzera emateko?

Pixkanaka goaz eta eskualdeko haurrei kirola probatzeko gonbidapena luzatu nahi diegu. Jendea guregana galdezka hurbiltzen da. Hirian futbolarekin gertatzen den bezela, Bidasoaz gainera, Irunen bestelako klubak egotea interesgarria iruditzen zaigu eskubaloia kultura aberasteko.

Lehen hilabeteak gogorrak izan dira?

Bai, espero genuena baino gogorragoak. Udaran las asko egin dugu, arropa hautatzeaz gainera, pistak eskatu behar genituen eta udalak pista horiek eskaintzek esfortzua egin du. Mila gauza egin behar dira, baina, aurrera goaz ilusioz eta denon artean.

Talderen batean jokalar berrientzako hutsuneak daukazue oraindik?

Mutilen taldea beteta daukagu eta nesken taldean duela gutxi bi jokalar berri onartu ditugu. Eskolako izen-emaitea irekita dago oraindik, bereziki, 5. eta 6. mailako haurrentzat.

Zeintzuk dira Txingudi Egaindar klubaren bitartez zabaldu nahi dituzuen baloreak?

Klubean garrantzi handia ematen diegu baloreei. Kluba soziala izan behar dela uste dugu, hau da, emaitzez gain, kirolaz gozatzea eta talde lanari garrantzia eman nahi diegu. Gainera, eskolaren gaiarekin loturik inklusioa lantzea gustatuko litzaiguke.

Zeintzuk dira datozen urteetarako daukazuen erronkak?

Gure erronka nagusia aurrera jarraitzea da. Eskola sendotu nahi dugu, horretarako, urtean zehar jardunaldi ezberdinak antolatuz. Etorkizunean talde gehiago izan nahiko genituzke, seniorrez gainera, infantil edo kadete taldeak osatu ahal izateko. Eskubaloia zentzu guztietan indartu nahi dugu eta denborak esango digu zein den gure tokia.



Haitz Intxausti, senior mutilen taldeko jokalaria:

Hainbeste klubetatik igaro ostean, nola iritsi zara klub berri honetara?

Aurreko urtean Hondarribiko klubean jokatu genuen. Entrenatzaileak komentatu zigun klub berri bat sortzeko asmoa zegoela eta berarekin etortzea erabaki genuen.

Giro ona duzue taldean?

Bai, adin diferenteetako jendea dago taldean, baina, hainbeste urteetan elkarrekin jolasten ibili ostean denak ondo ezgautzen gara.

Lehen partiduetan zuen burua neurtzeko aukerarik izan duzue?

Nahiko ondo galbiltza, izan ere, lehen lau partiduak irabazi ditugu, gainera, tarte handiarekin eta nahiko gustora jolasten ari gara.

Zein aurreikuspen egiten duzu denboraldi amaierara begira?

Denboraldia kategoriaz igotzen amaitzea gustatuko litzaiguke, hori da denek bilatzen duguna. Pixkanaka joan beharko dugu, esaten den bezela, partiduz partidu.

Eskualdean honelako klub baten sorrera beharrezkoa ikusten zenuen?

Bai, Irunen betegabeko hutsunea gelditu zen eta hori betetzen saiatzea interesgarria iruditu zaigu.



Maialen Unanue, neska seniorren taldeko jokalaria:

Eskubaloian izandako lehen esperientzia izan da zuretzat?

Ez, aurretik bi klubetan ibilia nintzen, Bidasoan eta Hendaietan. Klub berri bat sortzea proposatu ziguten eta klub eta ekipo ezberdinak nahastuz orain dugun taldea sortu da.

Nolakoak izan dira lehen hilabete hauek?

Hasieran gutxi ginen eta martxa hartzea kostatu zitzaigun. Orain, ordea, ekipoa osatzea lortu dugunean jokalarien artean giro ona dagoela ikusi dugu.

Ondo ikusten duzue zuen burua denboraldi honetara begira?

Talde berri bat gara, elkarrekin gehiago jolastea falta zaigu hobeto elkar ezagutzeko. Gogoak dauzkagu eta elkarrekin entrenatzea gustatzen zaigula nabaritzen da. Partiduak galdu edo irabazi arren, oso ondo pasatzen dugu elkarrekin.

Neska jokariak onartzen dituzten taldeak topatzea zaila da gaur egun?

Bai, Txingudi Egaindar taldearen sorrerarekin pozik gaude, izan ere, senior kategorian zaila da neskentzako taldeak topatzea.

Behobia-Donostia lasterketako parte-hartzaileen bizipen eta sentazioak

Urtero, azaroko lehen asteburuetako baten 30.000 pertsonatik gorak Irungo Behobia auzoa eta Donostiako Bulevard-a banatzen dituzten kilometroak korrika egiten dituzte. Elixabet Zabaletak 2014 urtean parte hartu zuen lehen aldiz kirol proba honetan. Aurtengoa korrikalari irundarraren hirugarren Behobia-Donostia lasterketa izango da eta marka hobetzeko helburuarekin begiratzen dio azaroaren 10ean egingo den lasterketari.

Nolako izan da zure bizitzan zehar kirolarekin izan duzun harremana?

Orain dela hamar urte korrika egiten hasi nintzen. Betidanik kirol ezberdinetan aritu naiz eta korrikarekin poliki-poliki hasteko erabakia hartu nuen. Gaur egun, ordea, korrika egitea nire kirola dela esan dezaket.

Nola gogoratzen duzu lehen lasterketa hori?

Oso lasterketa polita izan zen niretzat, batez ere, lasterketa inguratzen duen giroarengatik. Ibilbidean zehar jende asko dago eta asko animatzen zaituzte.

Irundar batentzat berezia da Behobia-Donostia lasterketan izena ematea?

Bai, izan ere, hemen inguruan bizi garenontzat proba oso garrantzitsua da eta, hortaz gain, polita ere.

Zerk animatu zituen kirol proba honetan parte hartzea?

Nire lagunek animatu ninduten, haiek ere korrika egiten dutenez, elkarrekin probatzea eta lasterketan izena ematea erabaki genuen.

Jendeak aipatzen duen bezain berezia ahal da korrikaliek lasterketan zehar nabaritzen duzuen giroa?

Bai, oso berezia da. Lasterketa hasten denetik amaierara arte bidean zehar jende asko ikusten duzu eta egia da ikusleek asko animatzen dituztela korrikalariak.

Zein da probaren zatirik gogorrena zure ustez?

Nire gustokoak ez diren bi zati daude ibilbide osoan zehar. Lehena, Gaintxurizketako aldaparen igoera bukatzen denetik Lintzirin arteko zatia, jende gutxiago dagoelako bertan. Bigarrena, berriz, Grosera heltzerakoan, buruak helmugan zaudela esaten dizulako, baina, oraindik azken 2 kilometroak falta dira eta astuna egiten zait.

Eta zuretzako esanahi berezirik duen zatirik?

Orokorrean, lasterka osoan zehar giro ona dagoenez, zati guztiak politikak eta atseginak direla esango nuke.

Nola prestatzen zara Behobia-Donostia egiteko?

Orain Super Amara BAT taldean nago eta astean zehar



Argazkia: Estudio Gover

hiru egunetan Plaiaundiko pistetan entrenatzen dut. Hortaz gain, gainontzeko egunetan nire kabuz gimnasia joaten edo kalera korrika egitera irteten saiatzen naiz.

Lasterketa bakarrik edo konpainiarekin egitea nahiago duzu?

Bietara egin izan dut, bai lagunekin zein bakarrik. Dударik dago, ibilbidea norbaitekin egitea askoz eroso eta dibertigarriagoa da.

Zein erronka jartzen dizkiozu zure buruari aurtengo edizio honetarako?

Printzipioz marka hobetzeko asmoa dut, gero ikusiko dugu zer gertatzen den. Hain zuzen ere, lasterketa ordu bat eta 30 minututan amaitzea gustatuko litzaidake.

Zer sentitzen da Donostiako Boulevardeko helmuga zapaltzerakoan?

Pakea, postasuna, alaitasuna ... Helburu bat lortzen duzenean gorputzean sortzen zaizkizun sentimendu guztiak somatzen dituzu.

Zein balorazio egingo zenuke egun emakumeek mota honetako lasterketan duten parte-hartzearen inguruan?

Egoera oso positiboa dela uste dut, urteak pasa ahala kirol munduan emakumeentzako lekua zabaltzen ari dela ikusten delako. Urte batetik bestera Behobia-Donostia bezalako lasterketan emakumezkoen izen-emateak geroz eta gehiago direla. Oker ez banago, aurtengo parte-hartzea %26koa izango da.

Urte luzeetan zehar Behobia-Donostian lasterketan parte hartzen ikusiko zaitugu?

Bai, ez dakit zenbat urteetan zehar, baina, oraindik besteren bat egiteko asmoa dut.



bideosare

Bideoak zure erara!



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com



Jonathan Mesonero, biolinista:

“Biolina izan zen ni hautatu ninduena”

Eskolaz-kanpoko jarduera bezala iritsi zen musika Jonathan Mesonero gazte irundarraren bizitzara. Denborarekin “hobby” batean bihurtu zen eta, musika gustoko izateaz gainera, trebezia zuela deskubritu zuen. Europa zein Asiako antzoki erraldoietan bere biolinaren musika zabaltzen ibili ostean, Jonathan Mesonero urriaren 27an Amaia Kultur Zentroko eszenatokira itzuli zen, Duo Vórtex izenaren azpian pianoan Jose Antonio Candel lagun izan zuelarik.

Zergatik aukeratu zenuen biolina?

Askotan egiten didaten galdera da hau. Egia esan ez dakit zergatik, baina, hasieratik biolina jo nahi nuela argi eta garbi nuen biolinaren doinua nolako zen ezagutu baino lehen. Gurasoek biolina entzun nezana eraman ninduten eta, askotan esaten den bezala, biolina izan zen ni hautatu ninduena, ez alderantziz.

Zein formakuntza jaso duzu musikari dagokionez?

Irungo Kontserbatorioan nire lehen musika ikasketak amaitu ostean, Musikenen sartu nintzen. Horren ostean, 5 urteetan zehar Berlinen egon nintzen masterreko ikasketak osatzen.

Nola baloratuko zenuke urriaren 27an Irunen emandako kontzertua?

Oso ondo atera zen dena eta esperientzia berezia izan da, izan ere, etxean kontzertu bat ematea berezia da beti. Familia, lagunak eta ezagunak gurekin kontzertuaz disfrutatzera animatu zirenekin elkartu ziren Amaia Kultur Zentroan. Gainera, oroitzapen asko etorri zitzaizkidan burura, gazteagoa nintzenean antzoki horretan bertan emandako lehen kontzertuetakoak. Jotzen jarraitzeko gogoekin gelditu nintzen, batez ere, jendearen komentario positiboak entzun ostean.

Non sentitzen duzu presio gehiago, antzoki handietan edo etxean jotzerakoan?

Presioa eta urduritasuna kontzertu guztietan presente daude. Etxean jotzerakoan, egia da, presioa puntu bat gehitzen dela lotura emozionalaren ondorioz, zure onena eman eta babestua sentitu nahi zarelako.

Zein izan musikari esker bizi izan duzun unerik bereziena?

Kontzertu guztiak bereziak dira. Hortaz gain, momentu bereziak izan dira Berlinen ikasteko onartu nindutenean, Nicanor Zabaleta beka eta Humbolt beka alemana irabazi nituenean Orokorrean, nire lana saritu duen errekonozimendua jaso dudana momentu guztiak. Izan ere, sari horiek aurrera jarraitzeko indarrak ematen dizkizute.



“Etxean kontzertu bat ematea berezia da beti”

Musikaren munduan esan ohi den bezain sakrifika-tua ahal da?

Musika zure benetako pasioa bada esfortzu guztiek pena merezi dute. Bestela, tortura batean bihurtu daitekeela uste dut, izan ere, musikariak eliteko kirolariak bezalakoak gara. Hau da, oporrak ez dira gure egutegian sartzen eta egunero ikastea ezinbestekoa da aurretik egindako lana ez galtzeko. Horregatik, kontzertuak oso garrantzitsuak dira aurreko lan-zikloa itxi ahal izateko.

Noiz kaleratuko da zure lehen diskoa?

Aspaldi martxan jarritako prozesua da eta, dena ondo ateraz gero, urte amaieran edo 2020 urtearen hasieran aterako dugu. Diskoak lan eta ordu asko dauzka atzetik, beraz, oso pozgarria da lan horren guztiaren emaitzak

“Musikariak eliteko kirolariak bezalakoak gara”

ikustea. Era berean, nire buruari egiten diodan opari bat bezala ikusten dut, azken urteetako sakrifizio guztia saritzeko.

Zeintzuk dira zure hurrengo helburua?

Egiten dudanarekin gozatzen jarraitzea eta musikagatik sentitzen dudana pasioa inoiz ez galtzea gustatuko litzaidake. Erraza ez den arren, kontzertuak ematen jarraitzeko babesa eta laguntza eskuratzen jarraitu nahiko nuke. Izan ere, badakit jende askok musikaz bizitzeko aukerarik ez duela eta, azken finean, pribilegiatu bat naitzela.




Fernando
Vergara
argazkilaria

Letxumorro hiribidea 100,2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484

www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com



Irungo La Salle LH2



Denborapasak

Eguraldia

S	H	G	C	T	S	O	Z	U	R	I	O	H	I	A
R	C	T	A	D	K	B	R	N	N	K	C	Z	A	Z
I	D	U	N	K	E	L	U	L	T	O	L	C	I	I
B	O	N	R	O	A	U	I	D	S	H	D	G	R	B
M	A	E	I	B	E	Z	O	E	O	I	I	I	C	F
D	E	J	L	R	O	I	K	E	K	A	A	K	O	M
A	R	O	U	U	A	Q	A	A	U	R	I	K	I	O
X	K	M	N	D	R	D	R	F	B	A	R	K	O	Z
E	R	U	A	B	E	N	K	K	L	A	Z	I	I	E
Q	A	R	R	Q	M	U	G	N	A	U	R	E	R	D
E	P	T	N	D	E	H	H	L	G	N	I	H	O	R
B	Z	L	O	N	S	L	O	E	A	N	B	Q	E	T
E	Z	I	A	H	I	O	D	T	T	O	A	U	O	A
R	A	K	H	D	Z	R	E	E	L	A	N	B	R	O
E	L	E	A	O	K	T	I	M	M	R	L	E	N	A

						6	3
	8		7		4		2
7		2				8	
			6			7	
1	7		3	8			4
							6
9	6		8	3			5
8			9	4	7	2	
	3		5				7

Haize, eguzki, trumoi, kazkabar, hodei, lanbro, elur

IRUNABAR

IRLINGO BERTSOAREN BILGUNEA



2019KO UDAKO ERREPASOA

Doinua: Loriak udan intza bezela
Egilea: Abel Zabala

1. Konpromisoa hartu nuen ta sorta jartzeari ekin hilabetean borrokatu naiz ideiekin zein hitzekin errepasso bat egin nahi nuke orain ahal dela zuekin bi mila eta hemeretzi udak utzitakoekin.
2. Udaletako hauteskudedei beharko erreparatu udaberriko azken egunek utzi zuten zenbait datu berriro ere Sagarzazuk zein Santanok botoak batu Hondarribian eta Irunen ezertxo ez da aldatu.
3. Uda parteak parranda gogoz jartzen gaitu alde-alde nahiz ta urteak joaten diren beti berdinetan gaude ze emakume izate hutsa ez da irtetzen debalde ia jairikan ez da igaro sexu erasorik gabe,
4. Klima kontutan nahiko sentsible omen dabil Jaurlaritzan baina_eredua aldatzea da ezinbesteko baldintza trenez, metroez ta errausgailuez kokoteraino gabiltza ingurumena kixkaltzen dute ta kea saltzen dabilta.
5. Gerran dago(e)nak bere herritik nola nahi duen atera Siriatikan iristen dira Italiako atera ez da goxoa europatikan egiten zaien harrera Open Arms-ekin gertatu zena horrexen adibide da.
6. Nola galerna uda betean iritsi zen G zazpia ta Biarritzen atera zuten familiko argazkia alturan gora igo ezker bataratzen da azpia gutxi batzuek zuzentzen dute munduaren sarraskia.
7. Kristautasuna gurean ere oraindik ez dago hila Jainkoa eta Lege Zaharra Jeltzaleen maratila Urkullu jauna Batikanora bada kilometro pila ta militarrek Arantzazura bedeinkazioan bila.
8. Sei adibide edo exenplu aipatu ditut emeki zein den indartsu ta zein menpeko azaltzen dute ederki alternatibak behar ditugu eta garunak ireki zeren bestela boteredunek irabazten dute beti.

Dunboa LH6



BOK 'N' ROLLA



Dunboa eskolan, aurtan ere, hamaiketako jasagarria lantzen ari gara. Hamaiketakoan plastikoa eta aluminiozko papera ez erabiltzeko BOK 'N' ROLLA egin ditugu.

Hemen azalduko dizuegu nola egiten diren. ANIMA ZAITEZTE!!!

MATERIALAK

Oihala, plastikoa, orratzak, jostorratza, haria, belkroa, guraizeak, titarea, papera eta arkatza.

NOLA EGIN



1. Oihala eta plastikoa txant linaren neurrian moztu. (43)
2. Plastikoa eta oihala alderantziz jarrita, orratzekin elkartu.
3. Ertzetik zent metro bat markatu eta mangotu dugun merratik josi.
4. Alde batean zatitxo bat josi gabe utzi.
5. Dena josi ondoren, buelta eman lehen utzi dugun zuloetik.
6. Utzi dugun zatitxo josi.
7. Plastikozko aldean eta oihalezko aldean belkro bari jarri.
8. Bokarrola tolestu.



Dunboa HLHI

6. maila

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meakua auzoa, 9 - 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964

FELIX MANSO IBARLA JATETXEA

info@felixmanso.com
www.felixmanso.com



Asier Etxenagusia, patinatzailea:

“Futbola eta baloiak gogoko ez dituzten gazte-entzako aukera aproposa izan daiteke”



Argazkia: Estudio Gover

Duela lau urte ezagutu zuen lehen aldiz Asier Etxenagusia gazte irundarrak scooterren mundua. Ordu-tik, askorentzat ezezaguna izan daitekeen kirol honetan murgildurik dabil Euskadi eta maila nazionaleko txapelketa ezberdinetan parte hartzen. Jendea kirol modalitate berri hau probatzera animatzeaz gainera, hirian entrenatzeko instalakuntza egokia-koak eraikitzea gustatuko litzaioke bere ametsak bete ahal izateko.

Zergatik gomendatuko zenuke kirol hau praktikatzeko?

Futbola eta baloiak gogoko ez dituzten gazteentzako aukera aproposa izan daiteke. Horrela, beste kirol batzuk probatzera animatuko nituzke, adibidez, scooterrarekin patinatzerara. Hori izan zen nik egin nuena eta hobby hau hautatu nuen azkenean.

Non entrenatzen duzu?

Orain ikasten nabilenez, egunean zehar klasera noa eta arratsaldeak entrenatzeko erbailtzen ditut. Irunen nagoenean Ficoba ondoko skate parkean entrenatzen dut. Hortaz gain, Kataluniako klub batean sartuta nago, Reusen, eta noizbehinka hara joaten naiz patinatzerara. Bertan pabilioi itxi bat daukate entrenatzeko prestatu dagoena eta trukoak errazago ateratzen dira bertan. Irunen, aldiz, horrelako instalakuntza bat falta zaigu.

Entenamendu errutina finkorik jarraitzen duzu?

Ez, kirol berdinean aritzen diren lagunekin elkartzen naiz noizean behin, besterik ez.

Eskualde mailan scooterren mundua ezaguna dela uste duzu?

Ez, orain apur bat zabaltzen hasi da, baina, orain arte ez zuen jende askok praktikatzen.

Zein instalakuntza beharko zenukete hobeto entrenatzeko?

Irungo Skate Parkean entrenamendu serio bat egitea ezinezkoa da. Londres bezalako hirietan horretarako pabilioiak daukate patinatzaile onenek entrenatzeko tokia izan dezaten. Hemen egurrezkoa eta itxita dagoen antzeko zerbait beharko genuke. Eguraldiaz gainera, Skate Parkean ume txiki asko jolasean ibiltzen dira eta zaila da haiek oztopatu gabe entrenatzea.

Urtean zehar zenbat txapelketetan parte hartzen duzu?

Urtero zortzi edo hamar txapelketa inguru izan ohi ditut, urtearen arabera. Euskadiko Txapelketaz gainera, maila nazional eta nazioarteko txapelketak daude.

Nolakoa izan zen Irungo Scooter Fest txapelketa zuretzat?

Nire azken txapelketa izan da eta hirugarren postua lortu nuen bertan. Txapelke-

tan minutu bateko iraupena duten txandetan lehiatzen gara puntuazioa lortzeko. Puntuazioak patinatzailearen erorketa, egindako trukoaren zailtasuna eta estiloa puntuatzen ditu eta horitk irabazle ateratzen dira.

“Urtero zortzi edo hamar txapelketa inguru izan ohi ditut”

Pozik zaude azken Irunen egindako txapelketan lortutako postuarekin?

Bai. Kirol honen barnean bi kategoria berrak bereizten dira, hamalau urtetik bererakoak eta gorakoa. Nik orain hamalau urte dauzkadanez kirolari handien aurka lehiatu behar naiz, beraz, zailago da puntuazio on bat lortzea.

Zeintzuk txapelketa prestatzen ari zara orain?

Urriaren 31ean Budeosera noa bertan antolatzen den txapelketa ezagun batera eta ikusiko dugu zer gertatzen den. Adibidez, Frantziako kategoriak ezberdinak dira eta 15 urtetik gorakoan sartzen naiz ni.

Hobby honek jendea ezagutzeko aukera eman dizu?

Bai, hori egia da, nahiz eta orokorrean jende gutxi garen eta, horregatik, jendea kirol hau probatzera animatu nahiko nuke.

“Helduagoa naizenean Espainiako lehena izatera iritsi eta munduko txapelketan parte hartu nahiko nuke”

Kirol garestia dela esango zenuke?

Ez, gauza gutxi behar dira. Kaskoa oso garrantzitsua da segurtasuna bermatzeko. Hortaz gain, erosten duzun lehen patina ez da zertan oso garestia izan behar, gustoko baduzu garestiagoak erosteko aukera izango duzu. Egia da prezio eta kalitatearen arabera lehenago edo beranduago patinak apurtzen direla.

Zeintzuk dira zure helburuak?

Helduagoa naizenean Espainiako lehena izatera iritsi eta munduko txapelketan parte hartu nahiko nuke.

Patinatzeaz bizitzeko aukerarik dago?

Bai, gutxi batzuk honi esker bizi dira, baina, oso zaila da.



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Web gunean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

2.000 lata berrerrabiliz osatutako murala

2.000 lata birziklatu eta berrerrabiliz mural bat sortuko dugu Gaztelekuan. "Dar la lata" izeneko jardueraren baren diseinua denon artean erabakiko da eta laten azpikoaldea margotuz gure artelana sortuko dugu, mural kolektibo izugarria eginez.

Irungo gune ezberdinetan latak jasotzeko puntuak jarriko ditugu, bakoitzak geruten duen tokira eraman ditzan. Tokiak aurrerago zehaztuko dira, baina, Gaztelekuan jada prest dago latak biltzeko kutxa.

Muralaren eguna: abenduak 27.

Ordua: 15:00etan.

Tokia: Martindozenea Gaztelekuan.

Ados gaude!

Beldur Barik programak Beldur Barik Jarrera! lehiaketaren 10. edizioa antolatuko du. Lehiaketaren xedea da emakumeek jasaten duten bereizkeria-egoerei aurre egiten dioten neska-mutilen arte-adierazpen mota oro onartu, baloratu eta bultzatzea.

Adina: 12-26 urte bitarteko gazteentzat (EAEn bizi edo ikasten dutenentzat). Kateroriak: Lehen kateroia (2006-2007 urteetan jaiok), bigarren kategoria (2001-2005 urteetan jaiok) eta hirugarren kategoria (1993-2000 urteetan jaiok).

Epea: Azaroak 5.

Ibil zaitez Europan zehar doan DiscoverEU erabiliz


Europako Komisioak dohainik bidaiatzeko aukera eskeintzen die DiscoverEU programaren bitartez 18 urtetik gorako eta Europa Batasuneko kide dire herrialdeetako gazteei. Tren, autobus edo ferriz bidaiatzeko txartelak oparitzen dira Europako herrialdeak deskubritu eta gazteek bertako kultura ezagutzeko aitzakiarekin. Bidai-taldera 4 pertsona gehitu ahal da eta programako beste erabiltzaileekin esperientziak konbinatzeko aukera egongo da. Gazteek sare sozialen bitartez partekatu beharko dute haien esperientzia #DiscoverEU traola erabiliz.

Eskaera epe berria: azaroaren 28ra arte.

Bidaiak egiteko epea: 2020ko apirilaren 1etik urriaren 31ra.

Bidaiaren iraupena: Iraupen minimoa egun bat eta gehienez 30 egun. Izena emateko: DiscoverEU webguneko formulazioa bete.

Zalantzak: eurodesk@injuve.es



Euskadiko Gazteak Lankidetzan 2020

2020ko Euskadiko Gazteak Lankidetzan programako kartelak zuk egindako irudia izan dezake eta trukean aparteko bidai irabazteko aukera izango duzu. Teknika ezberdinez baliatu zaitezke: argazkiak, marrazkiak, colageak, etab.

Irudiarekin batera, gazteak programan parte hartzerantz animatzeko proposamena egiten duen lelo bat ere erabili beharko duzu.

Programari buruzko ideien bat bururatzen bazaizu parte hartu!

Epea: Abenduak 2.



Folder

Paper-dendarik merkeena
ZIURTATUTA

Kolon ibilbidea, 2
(atzeko aldea)
www.kopiar.net
kopiar@kopiar.net
943 63 93 01

Azaroak

1

Kalean loreen salmenta

Zer: Kalean lore Salmenta Santu Guztien eguna dela eta.

Non: Jenaro Etxeandia plazan, prentsa kioskoaren atzean.

Ordutegia: Librea egun osoan zehar lotaregi baikoitzaren arabera.

2

Kontzertua: Benito Lertxundi

Zer: Abeslari oriotarrak bere azken lana, "Ospakizun gauean", aurkeztuko du.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 20:00etan.

Sarrera: 22 euro sarrera orokorra.

Sarrerren salmenta: Internet bidez, Irungo Turismo bulegoan edo antzokiaren leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

7

Foro parte-hartzailea

Zer: Elitxu-Lapitze auzoa diseinatzeko foro parte-hartzailea.

Non: Elitxu-Lapitze auzo-elkartea (Euskal Herria hiribidea 23).

Ordutegia: 19:00etan.

Sarrera: Librea.

Oharra: Bileraren bitartez auzoaren garapenerako ekintzak lehenetsiko dira.



Denborapasen emaitzak

S	H	G	E	T	S	O	Z	U	R	I	C	H	I	A		
R	O	T	A	O	K	E	R	N	K	C	Z	A	Z			
L	J	U	N	E	L	J	L	I	O	L	C	I	L			
E	S	A	R	D	A	U	T	O	S	H	R	G	R	S		
H	A	S	I	S	E	L	O	E	O	I	I	L	E	F		
D	F	T	I	S	O	K	E	K	A	S	O	C	H			
A	K	O	J	A	Q	A	A	J	K	I	S	T	O			
S	K	M	T	R	D	F	T	R	A	R	X	O	T			
S	E	L	A	S	E	N	K	L	A	L	I	E	F			
O	G	E	R	O	V	I	S	N	A	E	T	R	O			
E	P	N	D	E	H	H	C	O	N	I	H	O	A			
E	T	L	O	S	L	O	A	N	D	O	E	T				
S	E	L	A	H	I	O	J	I	O	A	U	S	A			
R	A	K	I	D	R	E	T	I	K	N	T	R	O			
S	E	L	E	A	O	K	E	T	I	H	V	A	L	E	N	A

4	9	1	2	5	8	6	3	7
6	8	3	7	9	4	1	2	5
7	5	2	1	6	3	8	9	4
3	4	6	6	2	5	7	1	9
1	7	6	3	8	8	5	4	2
5	2	9	4	7	1	3	8	6
9	6	7	8	3	2	4	5	1
8	1	5	9	4	7	2	6	3
2	3	4	5	1	6	9	7	8

8 eta 9

Behobia-Donostia lasterketaren azoka

Zer: Behobia-Donostia lasterketako parte-hartzaileei zuzendutako azokaren 13. Edizioa.

Non: Ficoban.

Ordutegia: Azaroaren 8an, ostirala, 12:00etatik 21:00etara eta azaroaren 9an, larunbata, 10:00etatik 20:00etara.

Oharra: Aparkalekua dohan eta Ficobako Euskotren geltokitik gertu kokatua.

10

Behobia-Donostia lasterketa

Irteera: Behobia (Irun).

Helmuga: Donostiako bulevarda.

Irteera Ordutegia: 9:45etan gurpildun aulkiak, 9:50 patinatzaileak eta 10:15 oinezko lasterkariak.

Informazio gehiago: www.behobia-sansebastian.com webgunean

10

Kontzertua

Zer: Joaquin Tadeo Murgia konpositore irundarra ezagutzen kontzertua.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera orokorra: 4,30 euro.

Sarrerren salmenta: Internet bidez, Irungo Turismo bulegoan eta emanaldiaren egunean Amaia Kultur Zentroko leihatilan.



IRUNERO EDONON ETA EDONOIZ

Oraindik ez duzu Iruneroren webgunea bisitatu?
Hamabost egunero egiten ditugun elkarrizketa eta
erreportajeez gainera, zenbait elkarrizketa bideoan
ikusteko aukera izango duzu ere

Facebook, Instagram eta Twitterren gure sare sozialak
jarraituz gero, azken orduko albisteen berri izango duzu